



## ATE IREKIEN JARDUNALDIA PEDAGOGIA 2019ko MARTXOaren 1a

**2019ko MARTXOaren 1ean** Musikeneko Pedagogia eta Ikerketa Sailak Ate Irekien jardunaldia antolatuko du. Bertan María José Aramberry, Katalin Hajnoczy, Maite Oca, Lucía Pérez, Maite Bilbao, Wolfgang Hartman, Juan Solaguren eta M<sup>a</sup> Ángeles Rodríguez irakasleek eta Musikeneko pedagogia ikasleek parte hartuko dute.

### Nori zuzenduak?

Musikenen goi mailako pedagogia ikasketak egin nahi dituen edonori, bereziki Musika Lanbide Irakaskuntzako 3. eta 6. urte bitartekoei. Familia, lagunak edo irakasleak ere ongi etorriak izango dira.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

### Jardunaldiaren helburuak:

- Parte hartzaileei espezialitate honen ikasketa-planari buruzko informazioa ematea: irakasgai ezberdinen helburuak eta irakasten dituzten irakasleak.
- Espezialitate honetako ikasleekin Musikenen egiten den lanaren partaide aktibo izatea.
- Espezialitatearen lan-aukerei buruzko orientabideak ematea.

### Jardueraren egitaraua

9.30-10.15: Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Oboe espezialitatearen ikasketa-planari buruzko informazioa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probei buruzko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

10.45-11.00: Ikasleen kantu koral erakustaldia Maite Oca irakaslearekin.

11.00-11.30: "Dalcroze-ekin esperientzia praktikoa" Maite Bilbao irakaslearekin.

11.30-12.00: Willems sensibilizazioa. Lucía Pérez irakasleak jarduera pedagogiko bat egingo du bertan daudenek libreki parte har dezaten.

12.00-12.15: Diana Campoó-ren ikasleek Dantza Musika Hezkuntzarentzat irakasgaiaren erakustaldia egingo dute.

### ATSEDENA

12.30-13.00: Kodály metodoaren aurkezpena. Parte hartzaile guztiekin egingo da jarduera hau eta Katalin Hajnoczy irakasleak gelan egiten duen lanaren erakusgarri izango da.

13.00-13.30: Musika eta mugimendu tailerra. Wolfgang Hartman irakasleak egingo duen eskolan jardunaldira datozen guztiek modu aktiboan parte hartu ahal izango dute, eta espezialitatean egiten dituen jarduera batzuk garatuko ditu bertan.

13.30-14.00: Pedagogia ikasleen entzunaldia M<sup>a</sup> Ángeles Rodríguez-en eskutik.



**Non:**

**MUSIKENE** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: [info@musikene.eus](mailto:info@musikene.eus)

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

**Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Jasone Alba-rekin, Pedagogia, Kultura eta Pentsamendua eta Gorputz Teknikak Departamentu burua: [pedagogia@musikene.net](mailto:pedagogia@musikene.net)**

